

## V. ATALA: ODOLAREN FARMAKOLOGIA

### 21.HEMOSTASIA

- Antiagregatzaileak

Farmakoa	Taldea	Ekintza mekanismoa	Eragin biologikoak (farmakologikoak + desiragaitzak)
<b>Azido azetil salizikoa</b>	Azido arakidonikoaren bidea oztopatzen dutenak, Ziklooxigenasaren inhibitzaileak	COX ziklooxigenasaren inhibizio itzulezina	Tronboxanoaren sintesia oztopatu. Antiagregatzailea (dosi baxuan)
<b>Sulfinpirazona</b>	Azido arakidonikoaren bidea oztopatzen dutenak, Ziklooxigenasaren inhibitzaileak	Ziklooxigenasaren inhibizio itzulgarria	Tronboxanoaren sintesia oztopatu. Antiagregatzailea
<b>Trifusala</b>	Azido arakidonikoaren bidea oztopatzen dutenak, Ziklooxigenasaren inhibitzaileak	Ziklooxigenasaren inhibizio itzulezina eta fosfodiesterasa inhibitu (AMPz handitu)	Tronboxanoaren sintesia oztopatu. Antiagregatzailea
<b>Vapiprost, Ifetroban</b>	Azido arakidonikoaren bidea oztopatzen dutenak, PGH2/TXA2 hartzailen blokeoa	PGH2/TXA2 hartzailen blokeoa, tronboxanoaren hartzailen antagonistak	Antiagregatzailea
<b>Ridogrel, Pikotamida</b>	Mekanismo mistoa	Tronboxano sintasaren inhibitzaileak eta TXA2-ren antagonista	Antiagregatzailea
<b>Tiklopidina, Klopido-rela</b>	GP11a/11b konplexua blokeatzen dutenak, ADPak eragindako agregazioa blokeatzen dutenak	ADP hartzailen antagonista	Glikoproteinen espresioa murriztu. Antiagregatzailea
<b>Abximab, Tirofiban, Eptifibatida</b>	GP11a/11b konplexua blokeatzen dutenak, Konplexuaren antagonistak	GP11a/11b konplexuaren kontrako antigorputzak	Antiagregatzailea
<b>Epoprostenol, Iloprost</b>	AMPz eta GMPz kontzentrazioak erregulatzen dituztenak, Ziklasen modulazioa	Prostaziklinen analogoak, prostaziklinen hartzailak kitzikatuz AMPz mailak igo	Antiagregatzailea
<b>Dipiridamol</b>	AMPz eta GMPz kontzentrazioak erregulatzen dituztenak, Fosfodiesterasaren inhibitzaileak	Fosfodiesterasak inhibituz AMPz eta GMPz mailak igo (degradazioa txikituz)	Antiagregatzailea

- Antikoagulatzaileak

Farmakoa	Taldea	Ekintza mekanismoa	Eragin biologikoak (farmakologikoak + desiragaitzak)
<b>Heparinak, Behe-pisu molekularreko heparinak</b>	Bide parenteraleko antikoagulatzaileak	Tronbinaren aktibitatea blokeatu, antitronbinarekin lotua katalizatuz, eta X faktore aktibatuarekin afinitatea handitu	Antikoagulatzailea (berehala). ED: hemorragia, osteoporosia, tronbopenia, tronbosia
<b>Warfarina, Azenokumarola</b>	Aho bidezko antikoagulatzaileak	K bitamina erreduktasaren inhibitzaileak, gamma karboxilazioa inhibitu eta koagulazio faktoreak ezin dira aktibatu	Antikoagulatzailea (eragin atzeratua). ED: teratogenoa, elkarrekintza ugari, hemorragia
<b>Dagibatran</b>	Aho bidezko antikoagulatzaile berriak	Tronbina inhibitzaile zuzenak	Antikoagulatzailea, teratogenoa, elkarrekintza ugari, hemorragia
<b>Ribaroxaban, Apixaban, Endoxaban</b>	Aho bidezko antikoagulatzaile berriak	X faktore aktibatuaren inhibitzaileak	Antikoagulatzailea, teratogenoa, elkarrekintza ugari, hemorragia

- Fibrinolitikoak, tronbolitikoak

Farmakoa	Taldea	Ekintza mekanismoa	Eragin biologikoak (farmakologikoak + desiragaitzak)
<b>Estreptokinasa</b>	Fibrinolitikoak	Plasminogenoa, fibrinogenoa, V eta VII faktoreak degradatu	Fibrinolitikoa. ED erantzun immunea
<b>Anistreplasa</b>	Fibrinolitikoak	Fibrina selektiboa, Estreptokinasa-Lys-plasminogeno konplexua. Plasminogenoa degradatu	Fibrinolitikoa
<b>Urokinasa</b>	Fibrinolitikoak	Fibrinogenoa eta plasminogenoa degradatu	Fibrinolitikoa
<b>Alteplasa</b> (plasminogenoaren aktibatzaile tisularra)	Fibrinolitikoak	Fibrina selektiboa eta fibrinarekin lotutako plasminogenoa aktibatu	Fibrinolitikoa

## 22. ANTIANEMIKOAK

Farmakoa	Taldea	Ekintza mekanismoa	Eragin biologikoak (farmakologikoak + desiragaitzak)
<b>Burdin gatzak.</b> Burdin sulfatoa, fumaratoa, glukonatoa, sukzinatoa, askorbatoa	Anemia ferropenikoa, aho bidetik (ferroso)	Burdinaren funtzioak bete	Fe igo. ED: liseri ongiezak, hemokromatosia, umeetan asaldura larriagoak, gaindosia (tratatzeko kelanteak)
<b>Burdin sorbitola, Burdin dextranoa</b>	Anemia ferropenikoa, bide parenteraletik (ferriko)	Burdinaren funtzioak bete	Fe igo, burdin dextranoak batzutan anafilaxia eragiten du
<b>Ziano-kobalamina, Hidroxi-kobalamina Azido folikoa, Azido folinikoa</b>	Anemia megaloblastikoa	DNAren sintesia eta eritropoesia ondo emateko osagaiak	Eritropoesia behar bezala gertatzea. DNAren sintesirako tetrahidrofolatoa behar da eta desmetilatzeke B12. *Aztertu gabezia zein den (B12 faltan kalte neurologikoak)
<b>Epoetina</b>	Hematopoiesirako hazkuntza faktoreak	Globulu gorrien sintesia handitu	Nefropatia kronikoan, HIESean, kimioterapia antineoplasikoan eta dopinean. ED: Hipertentsioa, tronbosia
<b>Sargramostin, Molgramostim</b>	Hematopoiesirako hazkuntza faktoreak	Granulazitoen eta makrofagoen garapena bultzatu	ED hezur mina
<b>Filgrastim, Lenograstim</b>	Hematopoiesirako hazkuntza faktoreak	Granulozitoen garapena bultzatu, mielopoiesia handitu (neutrofilo gehiago)	Neutropenian kimioterapia antineoplasikoan, HIESean, hezur muin transplantean, anemia aplasikoan... ED hezur mina